


Naturan Hezi: Oinezko bidaia

GIDA METODOLOGIKOA

MAÏA
PERMACULTURE

Naturan Hezi: Oinezko bidaia

HEZITZAILE ETA IRAKASLEENTZAKO GIDA METODOLOGIKOA, GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK NATURAKO IBILBIDE PEDAGOGIKOEN DISEINUAN TXERTATZEKO.

AURKIBIDEA

Sarrera 3

Permakultura oinez eta GJHak eskoletan 4

Lehen urratsak 7

Oinezko bidaiaren diseinu permakulturala 10

Gauzatzea 17

Balorazioa eta egokitzapenak 23

SARRERA

Naturan heztea gure izatearen hainbat dimentsioren adierazpena da, beste pertsonekin, gainerako izaki bizidunekin eta, batez ere, bizi garen paisaiarekin harremanetan jartzeko aukera ematen diguna, ingurune hori hirikoa zein landakoa izan.

Permakulturaren ikuspegitik, natura ez da gugandik kanpo dagoen zerbait. Gu geu ere naturaren parte gara, gure inguruan bizi diren gainerako izaki guztiak bezala. Tokian tokiko ingurunearekin eta paisaiarekin dugun harremanetik abiatuta, bizitza zaintzen eta sustatzen duten prozesuak diseinatzen ditugu, hiru oinarri etikotan bermatuta:

- Pertsonak zaintzea.

- Lurra zaintzea, bizitza osoaren eta hura hartzen duen paisaiaren adierazpen gisa.

- Bidezko banaketa, ditugun balia-bideak partekatuz eta behar dugun energia arduraz kudeatuz.

Gaur egun, hezkuntza sarritan espazio itxietara mugatzen da, ikasgeletara bereziki, baina baita eskolako patiora edo ingurune hurbilenera ere. Haurrek, ordea, ez dituzte muga fisiko horiek helduok bezala ulertzen. Hazteko eta ikasteko prozesuan, irudimena, jakin-mina eta sormena dira mundua ezagutzeko dituzten tresna nagusietako batzuk.

Ikaskuntza etengabeko aurkikuntza-prozesua da, bide intuitibo bat, haurrei beren nortasuna eraikitzen laguntzen diena, dimentsio fisikoan, mentalean zein emozionalean.

Gida honek hezkuntza eraldatzaile baten aldeko sormena pizteko inspirazio-iturri izan nahi du. Eskolei muga fisikoak eta mentalak gainditzen lagundu nahi die, natura hezkuntza-proiektuaren funtsezko parte bihurtuz eta haurren garapen integrala sustatuz.

Atea ireki eta aire freskoa sartzen utzi besterik ez dugu egin behar. Ekin diezaiogun elkarrekin bidaia berri honi!



PERMAKULTURA OINEZ ETA GJH-AK ESKOLETAN

« - Zer bilatzen du haizeak bere bidean? —galdetu zion gazteak agure jakintsuari.

Galderak ez zuen adimenarekin harrapatu zitekeen erantzunik. Izan ere, harrapa al daiteke haizea?

Denborak zimurtutako eskua altxatu, besoa luzatu eta haizearen bidea seinalatu zuen agureak, erantzun bitxi bat emanez: - EZ IBILI!!!»

PERMAKULTURA OINEZ

Permakultura natura behatzeko, bizitzeko eta gure inguruneak zein proiektuak diseinatzeko modu bat da. Naturak erakusten dizkigun ereduetan oinarritzen da, gu geu ere haren parte garela ulertuz, kultura iraunkor baterantz etengabe eraldatzen ari den prozesu batean. Ikuspegi hori oinezko bidaia pedagogiko bat irudikatzeko eta diseinatzeko metodologia gisa erabiltzen dugunean, hiru oinarri etikotan bermatzen dugu prozesu osoa:

01 **Natura sentitzea eta zaintzea,** bai inguratzen gaituena, bai gu geu garen natura.

02 **Bidelagunak zaintzea** eta bidean aurkitzen ditugun pertsona guztiengandik ikastea.

03 Motxilan daramaguna **partekatzea.**


Permakultura oinez proposamenaren helburua hainbat egunetako oinezko bidaia baten esperientzia bizitzea da, gu geu ere natura garela sentituz, elkar zainduz eta baliabideak zein beharrak partekatuz. Horretarako, mendian zehar, herriz herri, oinez egiteko bidaia bat diseinatzen dugu. Motxilan ezinbestekoa dena baino ez dugu eramaten, janaria partekatzen dugu eta ohiko ohearen erosotasunik gabe egiten dugu lo. Eta, batez ere, bidean jasotzen dugun guztia eta ikasten dugun guztia eskertzen ikasten dugu.



LA PERMACULTURA Y LOS ODS EN LAS ESCUELAS

"«Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) unibertsalak, eraldatzaileak eta inklusiboak dira, eta gizateriak garapenaren arloan dituen erronka nagusiak jasotzen dituzte. 17 GJHen helburua pertsona guztientzat bizitza jasangarria, baketsua, oparoa eta bidezkoa bermatzea da, orain eta etorkizunean. Helburuek gizateriaren biziraupenerako funtsezkoak diren mundu mailako erronkei heltzen diete, ingurumen-mugak eta baliabide naturalen erabilerarako atalase kritikoak ezartzen dituzte, eta pobrezia desagerraraztea garapen ekonomikoa sustatzen duten estrategiekin batera landu behar dela aitortzen dute. Era berean, hainbat behar sozial hartzen dituzte kontuan, hala nola hezkuntza, osasuna, gizarte-babesa eta lan-aukerak, baita klima-aldaketa eta ingurumenaren babesa ere." (UNESCOk Garapen Jasangarrirako Helburuetarako Hezkuntzari buruz argitaratutako gidatik hartutako pasartea)

Hezkuntzaren esparruan, permakulturak GJHak bere hiru oinarri etikoen arabera antolatzeko aukera ematen du, landu nahi diren hezkuntza-konpetentzien arabera diseinuan eta haren aplikazio praktikoan txertatuz.



Naturan hezteko proposamen pedagogiko honetan, oinezko bidaia baten bidez, ikastetxe bakoitzak honako GJH hauekin lotutako konpetentziak lantzea eta garatzea proposatzen da:

3. GJH OSASUNA ETA ONGIZATEA
Pertsona guztientzat eta adin guztietan bizitza osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.

4. GJH KALITATEZKO HEZKUNTZA
Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta bidezkoa bermatzea, eta bizitza osoan zehar ikasteko aukerak sustatzea.

5. GJH GENERO-BERDINTASUNA
Genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea.

12. GJH EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK
Kontsumo- eta ekoizpen-eredu jasangarriak bermatzea.

13. GJH KLIMAREN ALDEKO EKINTZA
Klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea.

Gida honen helburua ez da ikaskuntza-helburu kognitiboak, sozioemozionalak eta jokabideari lotutakoak zehaztea, baizik eta ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza-proiektuaren arabera helburu horiek definitzeko egitura eta inspirazioa eskaintzea, hainbat adibideren bidez.



NATURAN HEZTEN

«Naturan heztea haurrek natura ezagutzea baino gehiago da; naturarekin harremana eraikitzea da. Naturan denbora ematea, lekuak norberaren egitea, urtaroen erritmoa bizitzea, haizearen hotsa ezagutzea edo zuhaitz baten itzalean babeslekua aurkitzea da. Denborarekin, naturagune horiek ez dira espazio hutsak izaten, esanahia hartzen dute. Oroitzapenak, esperientziak eta emozioak pilatzen dira bertan. Haurrek lotura afektiboak eraikitzen dituzte lekuekin, eta lotura horien bidez hasten dira munduan duten lekua ere aurkitzen.

Naturan hezteak presentzia eskatzen du. Begiratzeko denbora, entzuteko denbora eta gelditeko denbora. Isiltasuna ere behar du, naturak etengabe eskaintzen dizkigun xehetasun txikiak ager daitezen: hostoen mugimendua, argiaren aldaketak, lokatzaren testura edo animalien arrastoak. Naturarekin lotura ez da hitzen bidez soilik eraikitzen; gorputzaren, zentzumenen, emozioen eta bizitako esperientzien bidez eraikitzen da. Horregatik, haurrek natura bizi behar dute, haren parte sentitu, harekin jolastu eta harengan murgildu.

Naturan heztea naturaren parte garela gogoratzea ere bada. Haurrek ingurunea behatzea eta ezagutzea garrantzitsua da, baina horren aurretik dago lotura. Ingurune horrekin, lekuekin eta bertan bizi duten guztiarekin lotura bat eraikitzea. Lotura hori sortzen denean, natura ez da kanpoan dagoen zerbait; norberaren bizitzaren, oroitzapenen eta identitatearen parte bihurtzen da. Eta agian hor hasten dira zaintza, errespetua eta ardura ere. Naturaren parte garela sentitzen dugunean, ingurunea ez da kanpoan dagoen zerbait; gu ere bizitza-sare beraren parte garela ulertzen hasten gara.

Oinezko bidaia baten bidez, modu natural eta organikoan, barneko esperientzia hau sortzen da, eta horrek lotzen gaitu paisaian bizi izan dugunaren oroitzapenarekin eta partekatzen dugun pertsonekin. Oinez bidaiatzea berez da Naturan Ikastea.»

Irati Andoño Erdozain, Kutxa Fundazioko Naturan Hezi Eskola eta Baso-eskola proiektuen gidaria

LEHEN URRATSAK

Eskola-egunetan oinezko bidaia bat antolatzeak aldez aurreko prestaketa eskatzen du, esperientzia jarduera puntual hutsa baino zerbait gehiago izan dadin eta ikastetxearen hezkuntza-proiektuan errotu ahal izateko. Hurrengo ataletan, Urduñako Eskola Publikoaren esperientzia hartuko dugu adibide gisa. Bertan, proiektu pilotu modura, hiru eguneko oinezko bidaia bat antolatu zen Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleekin, ikasturteko azken astean. Bidaia horrek eskolako etapa bati amaiera emateko eta Bigarren Hezkuntzarako jauzia ospatzeko aukera eskaini zien.


Baina ibiltzen hasi aurretik, merezi du atzera begiratzea eta bidaia honen hazia nola erein zen ezagutzea.

OINEZ IBILTZEKO KULTURA ETA NATURAKO HEZKUNTZA SUSTATZEA

Naturako hezkuntza hainbat modutan txerta daiteke ikastetxearen hezkuntza-proiektuan: baratze baten bidez, eskola-patioa birnaturalizatzeko prozesu komunitario baten bidez, gertuko natura-ingurunera irteerak eginez (hiriko parke batera, adibidez), edota ikasgelaren barruan elementu naturalak sartuz.

2019az geroztik, Urduñako Eskola Publikoak jarduera horiek guztiak txertatu ditu bere hezkuntza-proiektuan, Maïa Permaculture taldearen laguntzarekin.

Hurrengo atalean, egun bateko ibilbide pedagogikoak diseinatzeko eta ikastetxearen hezkuntza-proiektuan txertatzeko prozesua aztertuko dugu xehetasun handiagoz.



Urduñako Eskola Publikoaren Proiektua:

01 Zahar-egoitzako baratzeak — 2019-2020

02 Naturan zeharreko eskola-ibilaldiak — 2020-2021

03 Patioaren birnaturalizazioa: diseinua eta gauzatzea — 2021-2023

04 Proiektu Pedagogikoaren eraldaketa — 2021-2023

EGUN BATEKO IBILBIDE PEDAGOGIKOAK

Pandemia garaian naturan jarduerak egiteko beharretik sortu ziren oinezko ibilbide pedagogikoak. Urduñako Eskola Publikoak Maïa Permacultureri eskatu zion inguruko naturaguneetan hainbat ibilbide diseinatzeko, 2 eta 4 ordu arteko iraupenarekin eta Lehen Hezkuntzako maila bakoitzaren ezaugarri eta beharretara egokituta.

Lehenengo urtean, ibilbide horiek diseinu-taldeko kide batek gidatu zituen, behe- eta erdi-mendiko gidari-titulazio ofiziala zuen pertsona batek, hain zuzen ere. Helburu bikoitza zuten:

- Irakasleei ibilbideekin ohitzeko eta taldea inguru fisiko oztoporik gabeko batean gidatzean konfiantza eta erraztasuna sentiarazteko.

- Oinezko ibilaldi hauetan zehar benetako Natura Hezkuntza ezartzeko irakaskuntza-metodologiak eta tresnak aurkeztea.

Proiektuak arrakasta izan zuen, eta hurrengo urteetan ikastetxeak ibilbide horiek, baita gerora diseinatutako beste batzuk ere, bere hezkuntza-proiektuan txertatu zituen.

Gaur egun, Lehen Hezkuntzako maila guztiek gutxienez irteera bat egiten dute hilero naturara, oinezko ibilbide horietako bat eginez.

Haur Hezkuntzan, berriz, astero egiten dituzte irteerak ibai ondoko gertuko naturagune batera. Espazio hori Baso Eskola gisa txertatu dute beren hezkuntza-proiektuan, eta haren birnaturalizazio-diseinua Urduñako Udalak Maïa Permacultureri enkargatu zion.

Esperientzia honek kanpo-espazioak ekosistema pedagogiko gisa duen garrantziaz jabetzera garamatza.



KANPO-INGURUNEA EKOSISTEMA PEDAGOGIKO GISA

Hezkuntza-komunitate osoak prozesua babesten duenean, kanpo-ingurunea beste ekosistema pedagogiko bat bihurtzen da ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren barruan.

Horrek aukera ematen du hurrengo urteetan kanpo-espazioetan landu beharreko konpetentziak garatzeko eta muga fisiko zein mentalak gainditzuko dituen hezkuntza-kultura bat eraikitzeko, naturako hezkuntza benetan gauzatu ahal izateko.

Urduñako Eskola Publikoan egindako ibilbideari esker, aurretik aipatutako prozesua sendotu egin da. Horrela, 2025-2026 ikasturteko curriculum-proiektuan oinezko zein bizikletazko ibilbide pedagogikoak txertatu dituzte, baita oinezko bidaia ere, mugimenduan dagoen kanpaleku gisa.

Naturako pedagogia ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren parte bihurtzen denean, oinezko bidaia pedagogiko bat diseinatzeko hazia lur emankorrean ereinda dago.

Urduñako eskolaren jarduera osagarrien programaren adibidea

JARDUERA	HELBURUAK	CURRICULUM-AREKIN LOTURA	ARDURADUNA	HARTZAILEAK	NON-NOIZ	FINANTZIAZIOA
Ibilbide pesagogikoak (Baso Eskola, sagar bilketa, Delika, Gartxeta urtegia, Lendoñobeiti eta Tertangako errotak, Laudio, Basauri, Bilbo, ...)	Naturan ikasi. Bizi ohitura osasungarriak garatzea. Ibilbide pedagogiko bakoitzak bere helburuak izango ditu.	Curriculumeko zeharkako konpetentziak garatu irakasle-ikasle prozesua indartzeko.	BeA eta tutoreak	Ikasleak	Zonaldean urtean zehar	Ibilbide pedagogikoak zonaldean egiten dira eta oinez edo bizikletaz egiten dira. Kasu berezi batzuetan trena erabiliko dugu (gurasoek ordainduta)
Barnetegiak	Euskararen erabilera sustatu, talde kohesioa eta ongizate emozionala indartu.	Arazoak elkarlanean konpontzeko, ikasleen autoestimua, autonomia, gogoeta eta erantzukizuna indartu daitezen.	Batzorde pedagogikoa	HH - 5 urteko gela	Sarrian. Maiatzak 27-29	Gurasoen elkarteak barnetegira joateko garraioa ordaintzen du eta barnetegiaren zati bat.
				LH2 maila	Otazan (Sorgingune) Maiatzak 20-22	
				LH4 maila	La Arboleda Azaroak 5-7	
				LH6 maila	Urduña-Gorbeia ibilaldia Ekainak 16-18	

OINEZKO BIDAIAREN DISEINU PERMAKULTURALA


Eskola-eremuan oinezko bidaia bat diseinatzeko, ezinbestekoa da hezkuntza-komunitateko eragile guztiek partekatuko dituzten oinarrizko hiru premisetatik abiatzea:


01 **Segurtasuna** bidaiaren baldintzak zehazten ditu eta **Pertsonen zaintza** gure diseinuaren oinarria da. Horregatik, haurrei, familiei eta irakasleei konfiantza ematea funtsezkoa da. Horretarako, **ezinbestekoa** da bidaian gutxienez mendiko gidari tituludun batek parte hartzea (behe- edo erdi-mendiko gidari-titulazioa nahikoa da). Hogei haur inguruko talde baterako, bi gidari eta gutxienez taldeko tutorea joatea gomendatzen da.

02 Bidean uzten dugun **aztarnaz** jabetu. Ibiliko garen **ingurunea** eta bertan bizi diren **izaki guztiak** zaintzea ikaskuntza-prozesuaren parte da.

03 **Ekipaje arinarekin** ibiltzea, **bizitzan funtsezkoa** dena ikasteko. Motxila arina izan behar da, hainbat egunetako bidaiarako **ezinbestekoa** dena soilik eramanez. Daramaguna **partekatzen** dugu, bai motxilan duguna, bai etapa batetik bestera laguntza-ibilgailuan garraiatzen dugun janaria. Eguneroko **zereginak** guztion artean banatzen ditugu, eta **taldea osotasun bat** dela ikasten dugu, gure **aniztasunean** guztiok **berdinak** garela ulertuz.

Permakulturaren ikuspegitik egiten ditugun diseinuak, oro har, elkarren segidako lau fasetan egituratzen dira: behaketa, analisia, diseinua eta gauzatzea (plangintza, aurrekontua eta egikaritzea). Diseinua gauzatu ondoren, ebaluazioa eta beharrezko egokitzapenak egiten dira.







BEHAKETA ETA DATU-BILKETA

Maïa Permaculturek oinezko bidaia diseinatzeko prozesua behaketarekin eta datu-bilketarekin hasten du, honako urrats hauei jarraituz:

01 Hezkuntza-komunitatearen giro soziala eta proiektua martxan jartzeko kontzientziazio-maila aztertzea. Horretarako, ezinbestekoa da hiru baldintza hauek betetzea:

- Ikastetxeko zuzendaritzak eta irakasleek naturan heztearen aldeko filosofia partekatzea, eta oinezko bidaia bat ikastetxearen hezkuntza-proiektuan txertatzeko prest egotea.

- Haurrek bidaia elkarrekin eraikitzeko gogoa eta motibazioa izatea, esperientzia eta ikaskuntza-prozesu gisa.

- Familiek bidaia antolatzeko beharrezkoa den logistikan erabateko babesa eta laguntza eskaintzea.

02 Ikastetxea kokatuta dagoen ingurunea aztertzea. Landakoa ala hirikoa da? Kokapenaren arabera, bidaia hasteko gertuen dagoen natura-ingurunearen mapaketa egiten dugu. Urduñaren kasuan, mendiz eta naturaz inguratutako landa-eremuan dagoenez, eskolatik oinez abiatu eta Gorbeiara iristea erabaki zen.

03 Ikastetxeak antolatu nahi duen bidaiaren iraupena zehaztea. Haurren adinaren arabera, bi eta bost egun arteko bidaia diseinatzen da, bidean gutxienez gau bat igaroz.



ANALISIA

Hasierako mapaketa eta datu-bilketa egin ondoren, diseinatzen hasi aurretik kontuan hartu beharreko hainbat faktore aztertzeko faseari ekingo diogu.

01 - BEHARRAK

Ikastetxearen beharrak:

- Jarduera ikastetxearen hezkuntza-proiektuan txertatzea.
- Familien oniritzia lortzea.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren oniritzia lortzea.
- Erantzukizun zibileko eta istripuetarako aseguru-estaldura bermatzea.

Haurren eta familien beharrak:

- Segurtasuna eta komunikazio-kanal irekia bermatzea.
- Bidaia prestatzeko eta antolatzeko bilerak egitea.
- Esperientzia berri eta desberdin bat bizitzeko konfiantza eta motibazioa izatea.
- Bidaiaren diseinuan eta sorkuntza bateratuan parte hartzea.
- Parte-hartzea borondatezkoa izatea.
- Pertsona guztien berdintasuna eta inklusioa bermatzea.

02 - ESKURAGARRI DAUDEN BALIABIDEAK

Garraioaren logistika:

- Abiapuntua: eskolatik oinez abiatzea edo garraio publiko arrunta (autobusa edo trena) erabiltzea, ibilaldiaren hasierara iristeko.
- Itzulera: bidaia amaitzean, aurrez adostutako elkargune batetik familien autoetan itzultzea.
- Laguntza-ibilgailua (furgoneta edo autoa): egunero honako hauek garraiatzeko:
    - Afariak eta barnetegiko gosariak prestatzeko janaria, baita ibilbidean zehar jateko hamaiketakoak ere.
    - Sukalde eramangarria eta janaria prestatzeko lapikoak.
    - Haur bakoitzaren lo-zakua eta esterilla, motxilak gehiegi ez kargatzeko (aukerakoa da, bidaiaren diseinuaren eta haurren adinaren arabera).
    - Bidean sor daitezkeen ezustekoen ondorioz, pertsonaren bat etaparen amaierara eraman behar izanez gero, beharrezko garraioa. (Ez dira hemen sartzen erreskate-aseguruak estaltzen dituen osasun-larrialdiak edo istripuak).

Gaua igarotzeko lekuak: Diseinatutako ibilbidean dauden espazio publikoak, federatutako mendi-taldeen aterpeak, elizetako aterpe estaliak, eskolak, kiroldegiak eta abar.

03 - MUGAK

Mugikortasun murriztua duten pertsonak:

- Parte hartu nahi badute, haien beharretara egokitutako inklusio-plan bat diseinatzea.

Hezkuntza Ikuskaritza:

- Proiektua ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren barruko jarduera pedagogiko gisa justifikatzea, barnetegietan bezala segurtasuna bermatuz.

Aseguru-estaldurak:

- Ikastetxeak eskola-ordutegitik kanpoko jarduera estaltzen duen kanpalekuetarako aseguru bat kontratatu behar du (erantzukizun zibila eta istripuak).
- Eskola-ordutegiaren barruan egiten den jarduera ikastetxearen aseguruak estaltzen du.
- Mendiko gidari tituludunak bere asegurua izan beharko luke, eta jarduera ekonomikoetan alta emanda egon.

Aurrekontua:

- Haur bakoitzeko kostu osoak ez luke ohiko kanpaleku baten batez besteko kostua gainditu behar. Diseinua egokia bada, kostuak txikiagoa izan beharko luke.






DISEINUA – URDUÑAKO PROIEKTU PILOTUA URRATSEZ URRATS

01 Hazia ereiten

Analisi-fasea amaitu ondoren, amesten dugun bidaia diseinatzen has gaitezke. Diseinu-prozesua kanpoko eragile baten esku utz daiteke, edo ikastetxeak berak kudeatu dezake. Bi kasuetan, ordea, ikasturteko hezkuntza-proiektuaren parte izan beharko luke, eta inplikatutako eragile guztien artean adostu.

[Urduñako Eskola Publikoko Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek egindako diseinuaren aurkezpena — 1. zatia]







DISEINUA – URDUÑAKO PROIEKTU PILOTUA URRATSEZ URRATS

02 Zuhaitza marrazten

Oinarrizko irizpideak (hazia) zehaztu eta zuzendaritzak onartu ondoren, bidaiaren xehetasun praktikoak diseinatzeko unea iritsi da.

Urduñako Eskola Publikoko Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek egindako diseinuaren aurkezpena — 2. zatia



GAUZATZEA

Diseinua prest dugunean, egokiena, haurrek, ikasturteko hezkuntza-proiektuaren barruan, euren bidaia antolatzea da. Horrela, hainbat konpetentzia landu eta aukeratutako Garapen Jasangarrirako Helburuekin duten lotura aztertuko dute, bidaia gidatuko duen pertsonaren kanpo-aholkularitzarekin. Motorrak berotzen hasteko unea iritsi da! Baina abiatu aurretik, hainbat jarduera aurreikusi eta planifikatu behar ditugu.

PRESTAKETAK: PLANGINTZA ETA AURREKONTUA

Prestaketa

Bidaiaren aurreko une zirraragarrienetako bat iritsi da, protagonistei urduritasun handiena eragiten diena: egindako lana familiei aurkeztea. Aurkezpen horretan, haien oniritzia eskatzeaz gain, ametsa gauzatu ahal izateko zer laguntza behar duten azalduko diete. Bileran, ahal dela, gidarietako batek eta tutoreak parte hartu beharko lukete. Izan ere, azken proposamena aurkezteko ez ezik, bertaratutakoen zalantzak eta beldurrak argitzeko aukera ere bada.

Urduñaren kasuan, bilera bidaia baino astebete lehenago egiten da. Ordurako, eguraldiaren aurreikuspen nahiko fidagarria izan daiteke, eta larrialdi-plana aktibatzeko prest egon behar den ala ez baloratu.

Esperientziaren lehen urtean, baliteke bidaia martxan jartzeko hainbat tailer antolatu behar izatea. Erabaki hori, ordea, ikastetxeko zuzendaritzaren esku egongo da.

Honako tailer hauek ezinbestekotzat jotzen dira:

- **Motxilaren tailerra:** Mendiko gidari profesionalak ordubeteko tailerra eskaintzen du, zer motxila mota eraman, nola egokitu eta barruan zer sartu azaltzeko (motxila prestatzeko bideoa ikusi).

- **Egun bateko ibilbidea, bidaian eramango den motxilarekin:** Bidaia hasi baino aste batzuk lehenago, inguruko natura-eremu batera oinezko irteera bat antolatzen da, bidaian eramango den motxila berarekin. Helburua motxilarekin ibiltzeko lehen esperientzia izatea da, baita bidaiaren inguruko informazioa eta antolaketaren xehetasun guztiak berrikustea ere. Komeni da bidaian parte hartuko duten gidari eta tutore guztiek irteera hori taldearekin batera egitea.



Aurrekontua

Matematikako trebetasunak praktikan jarri eta eguneroko bizitzara eramateko unea iritsi da. Bidaiarako zenbat diru behar dugun kalkulatu eta, hura finantzatzeko, ikastetxearen zein familien laguntza bilatu beharko dugu. Aurrekontua itxia izatea komeni da, elikagaien erosketetarako aurreikusitako zenbatekoa izan ezik, hori gutxi gorabeherakoa izango baita.

Urduñaren kasuan, finantzaketa ikastetxearen eta guraso-elkartearen artean banatu zen. Izarrako afaria udal-igerilekuetako tabernan egiten da, eta bertan igarotzen dute lehen gaua, ekainean jartzen duten karpa handi baten azpian. Afari horrek lehen Urduñako inguruko jatetxeren batean Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek egiten zuten eskolako agur-bazkaria ordezkatzen du.

ZK.	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA	FINANTZAKETA
1	Diseinua	1.500€	Ikastetxea
2	1. Gidaria	1.000€	Guraso elkartea
3	2. Gidaria	1.000€	Guraso elkartea
4	Gaua igarotzeko asegurua	148,53€	Guraso elkartea
5	Elikagaien erosketa	210,17€	Guraso elkartea
6	Izarrako afaria	240€	Guraso elkartea
7	Autobusa eta Aterpea	39€	Ikastetxea
GUZTIRA		4.137,70€	
HAUR BAKOITZEKO KOSTUA (21 haur / 3 egun)		197,03€	

Hiru eguneko bidaiarako aurrekontu-proposamena, 21 haurrez eta bi mendiko gidari profesionalez osatutako talde baterako. Aurrekontuan bidaiaren diseinu- eta aholkularitza-lanak sartzen dira, baita aurretik egindako bi tailerrak ere.





LOGISTIKA

Janaria

- Tokiko saltokietan erosiko da.
- **Lehen egunean,** hamaiketakoa (ogitartekoa eta fruta) eta ura soilik eramango dira motxilan.
- Afariak, gosariak eta hurrengo eguneko hamaiketakoa prestatzeko beharrezko elikagaiak laguntza-ibilgailuak eramango ditu gaua igarotzeko lekura.

Garraioaren logistika

- Ibilbidearen hasieran edo tarteko punturen batean, garraio publikoa erabiltzea aurreikus daiteke, ibilgailuen zirkulazioa duten eremuak saihesteko.
- Laguntza-ibilgailuaren antolaketa irakasleen edo familien artean egin daiteke. Bidaia eremu babestu batetik igarotzen bada, Urduñako Eskolaren kasuan Gorbeiako Parke Naturalean bezala, baimena eskatu behar da ibilgailuarekin gaua igarotzeko lekura iristeko. Batzuetan, lur orotako ibilgailu bat behar izaten da.
- Itzulera familiekin antolatzen da, eta bizitako esperientzia elkarrekin **ospatzeko** aprobetxatzen da. **Benetan une hunkigarria izaten da!**

Ekipamendua

- Motxilak, ura (litro bat) eta hamaiketakoa barne, ez luke 6 kg baino gehiago pisatu behar. Gehieneko pisua pertsona bakoitzaren gorputz-pisuaren araberakoa izango da, eta motxilak gorputz-pisuaren %15 ez gainditzea gomendatzen da.
- Janaria prestatzeko su txikia eta lapikoak laguntza-ibilgailuan eramango dira.
- Gure esperientziaren arabera, 12 urtetik beherako haurren kasuan, lozakuak eta esterillak laguntza-ibilgailuan eramatea komeni da.
- Gidariek eta tutoreek larrialdietarako botikina eraman beharko dute.

Familiei egindako azken aurkezpena

- Bidaia baino astebete lehenago, azken aurkezpena egingo zaie familiei.
- Haurrek egingo dute aurkezpena, tutorearen laguntzarekin. Komeni da gidariak ere bertan egotea, azken zalantzak argitu ahal izateko.
- **Azken antolaketa-xehetasunak zehazteko unea izango da.**

OINEZ

Iritsi da egun handia. **A ZER URDURITASUNA!!!!!**

Taldeko argazkia aterako dugu eskolako atarian, familiei agur esango diegu... **eta OINEZ ABIATUKO GARA!!!!**





LARRIALDI-PLANA

Ezinbestekoa da hainbat egoera aurreikusiko dituen larrialdi-plan bat izatea:

Istripu edo bat-bateko gaixotasun baten ondoriozko erreskatea:

- 112 larrialdi-telefonoaren bidez egiten da, ikastetxearekin eta kontratatutako aseguruarekin koordinatuta.
- Mendiko gidariek kudeatu behar dute egoera hori.

Eguraldi txarra:

- Bero handia edo euri oso gogor eta iraunkorrak direla eta.
- Eguraldiaren arabera, gidariek ibilbidea aldatzea edo larrialdi-plana aktibatzea proposatuko dute, betiere taldearen segurtasuna bermatzea lehentasuna dela kontuan hartuta. Azken erabakia tutoreekin eta haurrekin adostuta hartuko da.
- Urduñako adibidean, bigarren gaua mendian igaro beharrean, eskolan igarotzea aurreikusi zen, bidaiaren amaierako ospakizun gisa. Orain arte, ez da neurri hori aktibatu behar izan.




OSPAKIZUNA

Itzulera familiekin berriro elkartzean borobiltzen da. Une hunkigarria da, haur askorentzat lehen aldia baita gurasoak ondoan izan gabe horrelako esperientzia bat bizi dutela.

Pozik eta GOSEZ itzultzen gara, eta badakigu behean, gure zain dauden tokian, besarkada eta musu ugari izango ditugula, eta batez ere... JANARI GOXOA!!!!

« Mendiko gidari eta naturako hezitzaile gisa, une hau, komunitatean ospatzeko unea izateaz gain, EMOZIO, EDERTASUN ETA POZTASUN SAKONEKO unea da niretzat. Elkartze horren energiak eta guztiok osasuntsu eta zoriontsu gaudela jakiteak ematen digun lasaitasunak esperientziaren balioa agerian uzten dute. Eta une horrek, behin eta berriz, betiko ikaslearen lekuan jartzen nau, oinez ibiltzearekin eta beste pertsonei beren bidean laguntzearekin ilusioa sentitzen jarraitzen duen ikaslearen lekuan. »


Ivan Tellaetxe, Maïa Permacultureko kidea



BALORAZIOA ETA EGOKITZAPENAK

Bizitakoaren zirrara oraindik barruan dugula, eta esperientzia gorputzean zein buruan fresko dugun bitartean, komeni da bidaia gidatu eta lagundu duten pertsonek eta ikastetxeko zuzendaritzak balorazio bateratu bat egitea, honako galdera hauei erantzunez:

- Zer ikasi dugu?
- Zer izan da pozgarria?
- Zer hobetu dezakegu?
- Zer egokitzapen edo aukera identifikatu ditugu etorkizuneko bidaietarako?



MAÏA
PERMACULTURE

ESKOLATIK NATURARA, NATURATIK MUNDURA

Gida hau Maïa Permaculturek garatu du, Urduñako Eskola Publikoarekin elkarlanean egindako ibilbide pedagogikoen esperientzian oinarrituta.

Eusko Jaurlaritzaren Agenda 2030 Bonoak programaren laguntzarekin.

Agenda 2030 Euskadiren konpromisoa | EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO